



AJANGIZKO UDALA

AJANGIZKO UDALAK 2019KO URRIAREN 23AN OSPATUTAKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

*Leire Garatxena Larrabe andrea
Gaizka Aspiazu Otazua jauna
Janire Intxausti Juaristi andrea
Ekaitz Lejarzegi Urizar jauna
Iñigo Valencia Alacano jauna*

Bitarteko Idazkari-Kontuhartzailea:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2019ko urriaren 23an, arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ez ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

1.- URDAIBAIKO PATRONATOAN URDAIBAI BIOSFERA ERRESERBAREN EREMUAN DIREN UDALERRIETAKO ORDEZKARITZA IZENDATZEKO HAUTAGAI-ZERRENDEN BOZKETA, BEHAR BADA.-

Urdaibai Biosferako Lehendakariak 2019ko irailaren 2an hartutako erabakiz, Urdaibai Biosfera Erreserbako Patronatoan udalek dituzten ordezkariak hautatzeko aurkeztutako zerrendak aldarrikatu ditu.

Aurkeztutako zerrendak kontutan hartuta, ebazpenak bi zerrenda aldarrikatzen ditu:

- EH BILDU taldeak aurkeztutakoa
- EAJ/PNV taldeak aurkeztutakoa

Bi zerrendak botaziora aurkeztuta, honako emaitza jaso da:



AJANGIZKO UDALA

EH BILDUK aurretutako zerrenda:

- Aldeko botuak, bost (5) EH BILDUKo ordezkariak
- Kontrako botuak, ez daude.
- Abstentzioak, bat (1) PNV/EAJko ordezkariarena

PNV-EAJk aurkeztutako zerrenda:

- Aldeko botuak, bat (1) PNV/EAJ taldeko ordezkariarena.
- Kontrakoak, ez daude.
- Abstentzioak, bost (5) EH BILDUKo ordezkariak.

Jasotako emaitzak kontutan hartuta, Alkate Presidenteak EH BILDU taldeak aurkeztutako zerrenda aldarrikatzen du onartuz, bozketaren emaitza Udaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatoko Lehendakarietara bidaltzeko aginduz.

2.- KULTUR ETXEAN IRRATI ANTENA BAT JARTZEKO AJANGIZKO UDALA ETA EUSKAL IRRATI ZERBITZUAK S.L. ENPRESAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Alkate Udaltzuek Euskal Irrati Zerbitzuak S.L. enpresak euskara hutsezko irrati bat martxan jartzeko Kultur Etxean antenna bat jartzeko egin duen eskaeraren barri eman du. Antena Kultur Etxearen atzekaldean kokatuko litzateke. Alkate jaunak, ondoren transkribatzen den hitzarmen-zirriborroa irakurrita, bertaratutako zientzietan aho batez onartu dute, Alkate Udaltzua beharrezko tramiteak burutzeko baimenduz.

AJANGIZKO KULTUR ETXEAN LURREKO UHIN HERTZIARREN BIDEZKO IKUS-ENTZUNEZKO IRRATI-ZERBITZUAREN ZEHARKAKO KUDEAKETARAKO ANTENA JARTZEKO AJANGIZKO UDALA ETA EUSKAL IRRATI ZERBITZUAK S.L. ENPRESAREN ARTEKO

HITZARMENA

Ajangizen, 2019ko _____ ren ____ an.

Bilduta, alde batetik, KOLDO CARBONELL OIARZABAL jauna, Ajangizko Udaltzua Alkate Udaltzua, Ajangizko Udaltzua ordezkari modura, 2019ko _____ ren ____ an ospatutako osoko bilkurak baimendua.

Bestetik, IBON ALTUNA GOIRIZELAYA jauna, 78.909.734 T N.A.N. zenbakiduna, EUSKAL IRRATI ZERBITZUAK S.L.ko administratzaile bakarra, B75063578 IFK zenbakiduna eta helbidea Donostiako JF Gilisagasti 2, 231 Bulegoan (20018) duena, Andres M^a Urrutia Badiola notarioaren aurrean burututako erantzukizun mugatuko sozietatea eratzeko bi mila eta hamabiko martxoaren bederatziko, N/07/03/2012 protokolo zenbakidun eskrituran ziurtatua.



AJANGIZKO UDALA



AZALTZEN DUTE

EUSKAL IRRATI ZERBITZUAK S.L. enpresak, Gernika udalerraren zerbitzu eremuan dagokion maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako ikus-entzunezko irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentzia jaso zuen, Jaurilaritza Kontseiluak 2016ko martxoaren 8an, Justizia Auzitegi Nagusiaren 5/2015 zenbakidun epaia betetzeko akordioaren bitartez.

Lizentziak Gernika udalerraren zerbitzu eremuan 96.7 MHz emititzeko maiztasuna baimentzen du, soinuaren maiztasun modulatu uhin metrikoen bidezko irrati-hedapenaren irailaren 1eko 964/2006 Errege Dekretu bidez onartutako Plan Tekniko Nazionalean jasotako plangintzaren arabera, eta ondorengo parametro tekniko zehatzak kontutan hartuta:

- *Antena igorlearen kokalekuaren koordinatu geografikoak:*
 - o *Luzera 002W4100*
 - o *Latitudea 43N1900*
 - o *Kota 55*
- *HEFM: 37.0 metro – Antenaren gehienezko altuera efektiboa (erreferentzia balioztat hartzen dira)*
- *P.R.A.: 0.100 kW – Erradiatutako guztiaren itxurazko gehienezko potentzia; alegia, polarizazio-plano bakoitzean erradiatutako gehienezko potentzien batura.*
- *Emisioaren polarizazioa: Mistoa.*
- *Erradiazioaren ezaugarria: Norabide gabekoa.*

EUSKAL IRRATI ZERBITZUAK S.L.k, Gernikan emititzeko euskara hutsezko irrati bat jartzeko, Kultur Etxeko fatxadaren ipar-mendebaldeko izkinan antena bat jartzeko baimena eskatu dio Ajangizko Udalari.

Aipatutakoaren arabera, sinatzaileek honako hau

ADOSTEN DUTE

Lehenengo.- AJANGIZKO UDALAK, *EUSKAL IRRATI ZERBITZUAK S.L. enpresari Ajangizko Kultur Etxeko fatxadaren ipar-mendebaldeko izkinan antena bat jartzeko baimena ematen dio, hitzarmen hau sinatzen den egunaren hurrengotik hasita bi urterako.*

Bigarren.- EUSKAL IRRATI ZERBITZUAK S.L. *enpresak lurreko uhin hertziarren bidezko ikus-entzunezko irrati-zerbitzuaren zeharkako kudeaketarako antena jartzeko erabili beharko du onartutako kokagunea, bestelako erabilpenik gabe.*

Hirugarren.- *Baimen hau doakoa da, ez da inolako preziorik ordaindu behar.*



AJANGIZKO UDALA

Laugarren.- EUSKAL IRRATI ZERBITZUAK S.L. enpresak instalazioaren kostu osoa hartuko du bere gain. Halaber, instalazioaren mantenimenduak sortzen dituen gastuak ere EUSKAL IRRATI ZERBITZUAK S.L.- k ordainduko ditu.

Bosgarren.- Baimenduak ezin izango du beste inolako obra, instalazio edo aldaketarik burutu espresuki eta idatziz udalaren baimenik ez badu.

Seigarren.- EUSKAL IRRATI ZERBITZUAK S.L. udalaren bitartez eraikuntza publikorako sarrera izango du instalazioaren funtzionamendu eta mantenimendu lanetarako, beti ere Udalari ahalik eta eragozpen eta kalte gutxien sortuz.

Instalazioak edo honen mantenimenduak udal eraikuntzan edonolako kalterik sortuko balu, EUSKAL IRRATI ZERBITZUAK S.L. kaltea ordaindu eta berehala konpontzera behartuta egongo da.

Udala, instalazioarekin erlazionatutako edozein gastu ordaintzetik libre geratuko da.

Zazpigarren.- Hitzarmenak bi urteko iraupena izango du. Bi urte horien buruan egoera aztertu eta baimena luzatzeko aukera edo eteteko erabakia hartuko da. Erabakirik ezean baimena urte betez luzatu dela ulertuko da. Lehenengo bi urteak igarota, bi aldeek izango dute hitzarmen hau bertan behera usteko aukera, beste parteari bi hilabeteko aurrerapenarekin abisatuz gero. Hitzarmenak dena dela, gehienez hamabost urteko iraupena izango du, beti ere EUSKAL IRRATI ZERBITZUAK S.L. enpresak maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako ikus-entzunezko irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentzia mantentzen duen bitartean.

Lizentzia galdu, hitzarmena bertan behera utzi edo baimena atzera botako balitz, EUSKAL IRRATI ZERBITZUAK S.L. enpresak hilabeteko epea izango du instalazioa kendu eta udal eraikina hitzarmen honen aurreko egoerara bueltatzeko. EUSKAL IRRATI ZERBITZUAK S.L. izango da instalazioak desmuntatu eta eraikuntzaren egoera bere onera ekartzearen arduraduna.

3.- ESPAINIAKO AUZITEGI GORENAK KATALUNIAKO INDEPENDENTISMOAREN LIDERREN AURKA EMANDAKO EPAIAREN AURREAN AJANGIZKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA, BEHAR BADA.-

Leire Garatxena zinegotzi andreak, Espainiako Auzitegi Gorenak Kataluniako independentismoaren liderren aurka emandako epaiaren aurrean Ajangizko Udalak egiten duen eta ondoren transkribatzen den adierazpen proposamenaren aurkezpena eginda, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute.

Espainiako Auzitegi Gorenak Kataluniako independentismoaren liderren aurka emandako epaiaren aurrean, Ajangizko Udalak ondorengo adierazten du:



AJANGIZKO UDALA

1. *Ajangizko Udalak ziurtatzen du demokraziaren adierazpen baketsua, indibiduala zein kolektiboa, gauzatzea eta herriari hitza ematea ez dela delitua. Hori horrela, urriak 1eko erreferenduma tresna demokratiko eta zilegia izan zela, eta Kataluniak bezala Euskal Herriak ere, berezkoa dutela etorkizuna erabakitze eskubidea.*
2. *Ajangizko Udalak argi eta garbi adierazten du ezin direla justifikatu Auzitegi Gorenak eta Estatuko botereek Kataluniako agintari eta gizarte eragileei bizkarreratutako auzia eta ezarritako zigorrak.*
3. *Ajangizko Udalak nabarmentzen du Kataluniako Procesaren aurkako auziak eta epaiak Zuzenbide Estatuaren itxuragabetzea dakartela eta ezbaian jartzen dutela espainiar demokraziaren homologazioa nazioartean.*
4. *Ajangizko Udalak azpimarratzen du euskal herritarrei zuzenean eragiten digula Estatu espainiarraren erantzun bortitzak, izan ere herrien borondatea era demokratiko eta baketsuz erabakitzea mozten baitu eta arazo politikoari tribunalen indarrez, 155. Artikuluaren ezarpenez edo erabakitze eskubidearen alde egiten dutenei edonolako neurri bidegabeak ezarritzen irtenbide elkarrizketatu eta negoziatua bilatu ordeztu eta herriari galdetu beharrean.*
5. *Ajangizko Udalak Estatuko botereei eskatzen die, espetxean dauden preso politikoak berehala aske utzi ditzala eta era berean, erbesteratu politikoen aurkako auzibideak bertan behera utzi ditzala.*
6. *Ajangizko Udalak elkartasuna adierazten die Kataluniako preso eta erbesteratu politikoei nahiz haien etxekoei hala nola Kataluniako herriari eta erakundeei, eta gipuzkoarrei dei egiten diete bat egin dezaten herriari hitza ematearen aldeko ekimen baketsuekin, demokraziaren eta askatasunaren alde.*

4.- 2019KO AZAROAREN 10EAN OSPATUKO DIREN HAUTESKUNDE OROKORRETARAKO MAHAIKIDEEN IZENDAPENERAKO BOZKETA, BEHAR BADA.-

Datorren 2019ko azaroaren 10ean Hauteskunde Orokorrak direla eta, hauteskunde mahaia osatuko duten kideak hautatatu behar dira: Presidente eta bokal bi eta bakoitzaren bi ordezkari.

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak arautzen duenaren arabera, Presidente eta Bokalak zozketaz hautatzen dira, idazten eta irakurten dakiten hirurogeita bost urtez beherako biztanleen artean. Presidenteak batxilergo edo bigarren mailako lanbide heziketa titulua izan behar du, edo subsidiarioki Eskola-Graduatu titulua edo ordezkaria.

Zozketa eginda, honako emaitza jaso da:

Titularra:

- Presidente: Miguel Angel Bermeosolo Obieta (U0057)
- 1. Bokala: Iratxe Azurmendi Albizuri (U0033)
- 2. Bokala: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez (U0326)



AJANGIZKO UDALA



Ordezkoak:

- Presidentearen 1. Ordezkoa: Maria Ujue Sota Guinea (U0339)
- Presidentearen 2. Ordezkoa: Leire Astelarra Urberuaga (U0025)

- 1. Bokalaren 1. Ordezkoa: Francisco Javier Ormaetxea Madariaga (U0296)
- 1. Bokalaren 2. Ordezkoa: Edurne Irigoras Mintegia (U0196)

- 2. Bokalaren 1. Ordezkoa: Idoia Magunagoikoetxea Gonzalez (U0240)
- 2. Bokalaren 2. Ordezkoa: Juan Felix Urrutia Larrinaga (U0368)

Mahaikideen ordezkoak onartutako elegiteren bat balego:

- **Presidentearenak:**
Ainara Bermeosolo Beitia (U0054)
Maria Rosario Gandarias Olaeta (U0131)

- **1. Bokalarenak:**
Maite Amesti Uriarte (U0012)
Janire Intxausti Juaritsti (U0181)

- **2. Bokalarenak:**
Jesus Mari Odriozola Badiola (U0267)
Isusko Ordeñana Gezuraga (U0295)

Eta beste aztergaitik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da iluntzeko 20:30etan, eta horren sendespena egiten dut Udaleko bitarteko idazkari naizen honek, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA
Koldo Carbonell Oihartzabal

BITARTEKO IDAZKARIA
Saioa Pineda Aranburu